

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroei banan banakako harremana eskainiko diegu, hau da, beraiekin tratatuko dugu pertsonalki. Ez badute nahi, beti bidali ahal digute haien galdera gure helbide elektronikora.

Gure web-gunearen bitartez edozein galdera erantzungo dugu “Galderak eta laguntza” atalean. Honekin batera, zerbitzu automatizatua ere badaukagu, hau ere “Galderak eta laguntza” atalean aurki dezakete eta galdera orokor batzuk erantzunda daude, besteak beste: nortzuk gara, non gaude , zer egin nahi dugu, zertan gastatzen dugu dirua, nola sortu genuen gure enpresa, nola bururatu zitzaigun tximistetatik energia ateratzea... eta abar.

Honen azpialdean, “bezeroen ideiak” atala egongo da, haiek guri bidaltzeko haien proposamenak. Atal honen etengabeko jarraipena egingo dugu, azken finean, bezeroari begira dagoen enpresa bat gara eta bezeroek egindako ekarpenak estimatzen ditugu.

Horrez gain, bezeroak guri donazioak egiteko atal bat egongo da: “inbertsioak proiektatu”, honekin proiektua aurrera eramatea errazagoa izango da, haien laguntzari esker.

Behin bezeroaren aurrean egonda, edozein galdera egin ahalko digute. Edozein galdera bota ahalko dute, web-gunean agertzen direnak bezalakoak edo pertsonalagoak, uste dugulako ez dela ipini behar mugarik galdera bat egiteko.